







guztientzako museoa

Pertsona guztiei Guggenheim Bilbao Museoaren zerbitzu eta jardueretarako irisgarritasuna eskaintzea da erakunde honen helburu nagusietako bat. Horregatik, zure eskura jartzen dugu informazio orokorreko gure katalogoa osatzen duen informazio-gida hau. Helarazi nahi diguzun edozein ohar edo iradokizun eskertuko dugu.



GUGGENHEIM BILBAO

- 
Entzuteko gidak: Eraikinaren arkitekturari zein Museoko erakusketei buruzko informazioa entzuteko gailuak dira. Entzungailu doigarriak eska daitezke. Begizta magnetikoa ere badugu. Entzuteko gidaren 100 zenbakian, hurrek *Denboraren materia* ezagutzeko kontakizuna dago. Adimen-urritasuna duten pertsonentzako eduki irisgarriak eskuragarri daude eraikinari buruz zein kanpoan kokatutako artelanetako batzuei buruz.
- Bideo-gidak: gaztelaniazko zeinu hizkuntzan** edo azpitoluekin landutako bideo-gidak daude entzuteko ezintasuna duten pertsonentzat. Entzuteko giden testu idatziak eskuragarri daude euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz.
- Deskribatutako gida**-ri esker entzuteko bisitaldia eskaintzen zaie ikusteko ezintasuna duten pertsoneri Frank Gehry-k diseinatutako eraikina eta museoaren eraikinaren kanpoaldean dauden hainbat artelan ezagutzeko. Halaber, **maketa ukigarriak** ditugu ikusmen-urritasuna duten pertsonen eraikina bera eta **hainbat eskultura** (*Puppy, Ama eta Zuhaitz garaia eta begia*) ukimenaren bitartez aztertzeko aukera izan dezaten.
- Haurrentzako aulkiak eta haurtxoak eramateko motxilak:** Txikiak eramateko aulkiak eta motxilak ditugu; eskatu arropazaindegian.
- 
Gurpil-aulkiak: Behar duten bisitariak erosoago ibiltzeko gurpil-aulkiak ditugu; eskatu arropazaindegian.
- Aulki eramangarriak:** Oso aulki arinak, ibilbidearen edozein unetan atsedean hartzeko; eskatu arropazaindegian.
- 
Komunak: Gurpil-aulkietan doazen erabiltzaileentzako prestatutako banakako kabinak dituzte komun guztiak. Gainera, lehen solairuan eta 0 solairuan haurtxoentzako alda-mahaiak daude.
- 
Igogailuak: Handiak direnez, solairuen artean eroso mugitzeko aukera ematen dute.
- 
Denda-Liburudenda: Gure dendako saltzaileek arreta pertsonalizatua eskainiko dizute.
- 
Jatetxeak eta taberna: Sarrera plazatik duen Bar Guggenheim Bilbao tabernaz gain, Museoak nazioartean ezagunak diren bi sukaldaritza-esperientzia proposatzen dizkie bisitariari: Nerua Guggenheim Bilbaok goi-mailako sukaldaritza eskaintzen du, eta Bistró Guggenheim Bilbao proposamen zaindu informala da, edozein unetarako aproposa. Irisgarritasuna bermatzen dute bi jatetxeek eta arreta-zerbitzua dute mahai guztietan. Elikagairen batekiko intolerantzia edo alergia baduzu, jakinarazi eta zuri egokitutako aukerak eskainiko dizkizugu. Jatetxeek haurrentzako aulkiak dituzte.
- Entzungela:** Gurpil-aulkitarako erreserbatutako lekuak eta begizta magnetikoa ditu.
- Community** arreta-gunean mahai egokitua dago gurpil-aulkia darabilten erabiltzaileentzat, eta begizta magnetikoa ere badago. Mahai horretan sarrerak eskuratu, Community ezagutu eta informazioa jaso ahalko duzu.



IKASLEEN BISITAK

- Zure gelan behar bereziak dituzten ikasleak badituzu, bisitaren aurretik jakinarazi, bisita behar horietara egokitzeko. Bisitak edozein premia mota duten ikasleetara egokitzen dira eta hezkuntza-gune guztiak irisgarriak dira.

Argibideak eta erreserbak, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, 944 359 090 telefonoan, 944 359 010 faxean edo informacion@guggenheim-bilbao.eus helbidean.

HELDUAK

Behar bereziak dituzten pertsonentzako bisita gidatuak eskaintzen dira:

- 
 • Gorrentzako gidaridun bisitaldiak zeinu hizkuntzako interprete baten laguntzarekin.
- Adimen-urritasuna duten pertsonentzako bisitaldiak.
- 
 • Ukimenaren bidezko bisitaldiak itsuentzat.

Argibideak eta erreserbak, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, 944 359 090 telefonoan, 944 359 010 faxean edo informacion@guggenheim-bilbao.eus helbidean.

OHARRAK

Museoak ez du bisitarietarako aparkalekurik. Hala ere, erraz hel daiteke Museoaren ingurutara tranbiaz.

Ibilgailu partikularrean etortzekotan, inguruan badaude udal-aparkalekuak. Edonola ere, 944 359 080 telefonoaren edo informacion@guggenheim-bilbao.eus helbide elektronikoaren bidez harremanetan jar zaitezke gurekin eta zure beharren arabera aukera egokiena jakinaraziko dizugu.

ARTELANEN AURKEZPENA

Arte moderno eta garaikideko museoa garenez, irizpide artistikoei zein kontserbazioari jarraitzen diegu halaberrez. Hori dela eta, gerta liteke aretoen barruko argiek, seinaleek eta gorde beharreko segurtasun-tarteek lanak behar bezala ikustea oztopatzea. Era berean, artelan bakoitzaren ezaugarri bereziak egilearen borondate artistikoari erantzuten diote, eta borondate horren izaera aldaezina da.